

Amonaren begietan

Gure amonak dena behatzeko ohitura du. Eserita besaulki erosoan, baina zur eta adi. Bere logelako leihoetatik begiraten du edo batzutan balkoian zutik zurezko barandari eutsitz. Begiak edo begiradak luzatzen ditu baserri aurreko bidexkatik malda-gora edo malda-behera doazen norabideak arakatzen. Ez da inoiz lan horretaz nekatzen eta nik, bere iloben artean iloba txikerrenak, estatua dela esaten diot txantxa moduan.

–Estatua? Hiriko parkeetako horietakoak? Bai zera, zereko zera! Halakorik esatea ere! –izaten da amona Luziaren erantzuna haserre itxurak eginez.

Kaletarrak gara aita baserrikoa izan arren eta asteburuetan joaten gatzazkio amonari bisita egitera. Amonak, nik ez dakit ziur, baina agian laurogeita sei urte edo ehunta hamabi edo beharbada hirurogeita hamazazpi izango ditu. Nik baino askozaz gehiago, bederatzi urte ta zortzi hilabete baino ez dauzkat-eta.

–Iraide, zatoz amonarekin eta kontaizkidazu zure eskolako kontuak, neskato.

Halaxe eskatzen ohi dizkit astebururo eta nik astegun buruzurietan izan ditudan katramilak azaltzen dizkiot: hizkuntzako letra zailak eta mateko batuketa nahaspilatuak, inguruko uraren ziklo errepikatua eta gizarteko aintzinako traste zaharren istorioak. Eskolako gauzarik onenak, patioan lagunekin izaten ditudan jolasak eta txarrenak, noizik behin, andereiñoek egiten dizkidaten errietak.

–Baina ez da nire errua izaten, amona, andereiño batzuz oso ipurterreak dira. Eta gizarteko istorioek asper-asper eginda uzten naute! Denak igarota daude, ez dakit zergatik ikasi behar ditudan!

Amona Luziak barre egiten ohi du nire kontuekin eta gero eskua pasatzen dit masailetatik eta ile endredatuetatik. Baina azken igandean zerbait berezia gertatu zen amonari egindako bisitaldian: egun batez, amona ikastolako andereiño izan nuen.

–Ai neska, istorioak ez dira soilik lehengoak, oraintxe bertan bizi ditugunak baino.

–Baina izen mordoa ikasi behar dut eta ez dute nirentzat zentzunik, amona!

–Izenek izanak betetzen dizkigute.

–Zer esan nahi duzu amona, izan edo izen edo esan duzunarekin?

Amona Luzia logelako besaulkitik altxatu zen eta, isilean, eskutik hartu ninduen eta eskailerak jaitsi genituen. Behe-solairu zabaletik baserriko ate mardulera abiatu ginen eta atea zeharkatuz, etxetzarraren aurrealdean gelditu ginen unetxo batez.

–Zer ikusten duzu hemendik Iraide? Begiratu eta esan.

Zuhaitzak eta belarrak. Urrunean mendi-gainak eta honantzago baso ilunak. Banekien errekatxoren bat zela nonbait, gure aita umetan igelak harrapatzera joaten omen zen tokia-edo. Errepidea eta amak gidatu zuen autoa. Zer ikusi behar nuen?

–Besterik ez, laztana?

–Ez dakit zer esan. Agian, zerbait ezkutaturik dago, amona?

–Ez, ez halakorik. Dena dago begien aurrean, ukitzeko moduan. Esaidazu Iraide, gure baserriak nola du izena?

Izena? Baserria baserria zen, amonaren etxe handia. Amonak Luzia zuen izena, aitona Joxerramon eta saltoka ziren txakurrek, Goi eta Lur. Baserriak? Ez nekien.

–Baserri zahar honen izena “Errotena Nagusi” da. Zergatik uste duzu halako izena jarri ziotela etxeari?

–Beharbada, errotena txikia baino handiagoa zelako-edo. Hala da, ezta amona?

Amona Luzia barre-algaraka hasi zen, oso barregarria irudikatu bait zitzaion nire erantzuna. Ez zen, ordea, nire helburua izan txantxarrik egitea.

–Bai, halaxe izan behar. Lehen, baserri honetan ur-erota zegoen, artirina edo irina ehotzeko. “Ureder” errekatxoak dakarren ur garbia erabilten zuten nire gurasoek eta haien arbasoek errotarriak mugiarazteko. Eta bai, ongi esan duzu, bazegoen beste “Errotena Txiki” hortik behera aldapa jarraituz. Beste galdera bat egingo dizut hain buru argia zarenez: honaino etorteko izan duzuen bideak nola du izena?

–Jo-pee amama, ikastolako kontroletan bezala! Bideak ere izena al zuen?

–Jakina, “Zaldunbide” zen antzina estrata zahar huraren izena. Herritik zaldiak, mandoak eta gurdiak etorten zirelako. Batzuk errotara uztak ekartzera; beste batzuk, irin zakuak jasotzera. Baziren beste batzuk aurrera jarraituz mendi-gainak zeharkatu eta beste toki batzuetara joaten zirenak. Merkatariak, abeltzainak edo herritik gora igo eta kostaldetik barnealdeko haranetara zihoazten bidaiariak.

–Bidaia luzea egiten al zuten, amona?

–Batzuk oso luzeak ziren. Begira, ikusten duzu han goian ageri den baserria? “Goiko-benta” du izena eta bertan deskantsatzen zuten azkenengoz gure haranetik kanpo abiatzen zirenak. Hurrengo goizean, “Larralde”-ko zelaiak pasatuz bideari ekiten zioten. “Arranotegi”-ko harkaitzen arteko zidorretatik ateratzen ziren gure haranetik eta halaxe sartzen ziren kanpotarrak, kontrako norabidean.

–Hara zenbat gauza dakizun, amona!

–Inguruko izenek azaltzen digute gertatutakoa, Iraide. Begiak ireki besterik ez.

–Eta zer gehiago azalduko didazu, amona? –jakinmina pizturik nuen jada.

Barretxoa ageri zitzaion amona Luziari ezpainetan eta ekialdera biratu zuen aurpegia eta begirada. Aske zuen eskua jaso eta zerbait seinalatu zuen.

–Hortik egon badago baso dotore bat “Haretzeder” izenekoa. Ontzigileek eta Frantziako arotzek estimaziotan zituzten zuhaitz haietatik lor zitzaketan oholak eta

masta sendoak. Errepidean aurkitu duzuen harri eta zurezko baserriak “Dolarezar” du izena eta inguruetakoa sagastietatik sagardoa egiten zuten bertan. Gero, haritz-kupeletan sartu eta sarritan Ternuara edo Irlandara edo Ameriketarako bidaietan eramaten zuten.

Eskutik hartuta mantendu ninduen eta amonaren hitzek, ez dakit nola esan, ahoskatzen zituzten istorioak imajinazioan benetazko irudiak sortu zizkidaten. Telebista ikusten ari banintz bezala ikusten nituen denak: zaldiak eta erreinu urrunetako bidairiak eta merkatariak eta ontzietako kapitainak eta kupelak eta sagar gazi-gozoak...

Baserriaren –orain banekien Errotena Handia zela bere izena– atzealdera joan ginen amonaren begietan jaiotzen ziren istorioekin jarraitzeko.

–Ikusten duzu hortik behera den basoa, Iraide? Baso horretan iturri bat egon badago, “Iturrigorri” izenekoa. Ez da edateko ur egokia, batzuk esaten dute deabruak gau batetan, amorruez, bere aker adarrak sartu zituela harkaitzaren kontra eta ondorioz burni zaporea duen iturri gorria jaiotzen zela. Toki horren izena “Basabeltz” da, ume, eta “Akerlanda” izeneko belardian agertzen ei zela deabrua diote.

–Ai amona, halako gauzek beldurra sortzen didate. Nahiago ditut sagarren istorioak eta zaldunen abenturak.

Amona pozik zen eta gauza ugari azaldu zizkidan familiako etxearen inguruan zeuden tokiei buruz: “Ikaztegieta” baserrikoek ikatz txondorrek ekoizten ohi zituzten aspaldidanik, “Hurritzaga”-koek intxaur eta hurritzak batzen zituzten udazkenean, “Sorozabal” etxean lur-soro handiak zituzten eta “Bizkarrondo” baserria erabilten omen zuten kontrabandistek ezkutuan gordetzeko itsasontzietatik ekarritako gaiak.

Amonak zera esan zidan, gure historia lehengo eta gaurko tokiei loturik dela eta paisaiako zidor xumeenak ere baduela zer konta. Inguruak lantzen gaituela eta aldi berean guk moldatzen dugula inguratzen gaituena.

Gaur aitak gidatzen du autoa Zaldunbidetik gora Errotena Nagusira ailegatzeko. Amona Luzia zain izango dugu, bere begiek ez dute ezer arakatu gabe utziko. Eta gaur ikusten dudana paisaiak esanahi ezberdinak erakusten dizkit. Ez dira soilik zelaiak eta zuhaitzak, baserri handi edo txikiak, basoak edo sagastiak, ez, orain jakin badakit izenak dituztela eta izena duen guztiak izana betetzen duela.